



PIRINIOETAKO LEHEN SEKTOREAN BELAUNALDI ALDAKETA ZERTAN DEN AZTERTUKO DA  
ONLINE JARDUNALDI BATEAN

*Pirinioetako Planeko ekintza honetan, irtenbideak bilatuko dira sektorearen etorkizuna sendotzeko.*

Pirinioko Planaren GuPirinioa-SomosPirineo markak, Intia sozietate publikoarekin batera, informazio jardunaldia antolatu du azaroaren 24rako, Pirinioetako lehen sektorean belaunaldi aldaketa arazotsua aztertzeko. COVID-19ren osasun-krisia dela eta, *Belaunaldi aldaketa: lurraldeen erronka eta beharrezko apustua* jardunaldi hau online egingen da guztiz, Zoom plataformaren bidez.

Pirinioetako lehen sektorean, datuak kezagarriak dira. Nekazaritzako ustiategien erregistroaren arabera, 2019an 440 nekazaritza ustiategi zeuden gutxi gorabehera, hau da, Nafarroako ustiategien % 3. 2013tik hona, nekazaritzako ustiategien kopurua murriztu da etengabe, eta % 23 gutxiago daude gaur. Luzaide, Aezkoa eta Erronkari dira ustiategi gehien galdu dituzten lurraldeak. Orobat, ustiapen gehienetan (% 89tan) kudeatzaileak pertsona fisikoak dira, eta nahiko edadetuak (erdiak 58 urtetik goitikoak dira). Ustiapenen titular fisikoen artean soilik % 8 dira 41 urtetik beheetikoak; beraz, argi dago sektorearen etorkizuna arriskuan dagoela.

Jardunaldian azertu nahi da zergatik ez dagoen belaunaldi aldaketarik nekazaritza jardueran, eta, arazoaren arazoak ulertzen saiatzeaz gain, irtenbiderako gako batzuk proposatuko dira. Hasieran bi hizlari arituko dira: Rubén Goñi, Nafarroako Gobernuko Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusia (bere zuzendaritzari dagokio Pirinioetako Plana bultzatzea eta koordinatzea), eta Natalia Bellostas, Intia sozietate publikoko zuzendari kudeatzailea. Ana Sagardoik ere parte hartuko du, Pirinioetako Mahaia ordezkatzuz. Aurkezpenaren ondoren, Zoe Brentek emanen du hitzaldi nagusi. Institutu Transnasionaleko ikertzaile hau aditua da elikadura burujabetzan eta elikagai, lur eta ur arloetan. Hitzaldi nagusian gakoak aztertuko ditugu, ulertzeko nola iritsi garen egungo egoerara eta zer irtenbide aurkitu ditzakegun.

Jardunaldiaren bigarren zatian, zenbait tokitako esperientzia berritzaileak aurkeztuko dira, sektoreko belaunaldi aldaketari lotuak. Hala, Espainian eta Frantzian dauden nekazaritza testa egiteko espazioei buruz mintzatuko dira Neus Monllor eta Laura Megías, alde batetik, eta Kattalin Sainte-Marie, bestetik. Esperimentazio gune horietan sektorean hasi nahi duten gazteek negozioa abiarazteko simulazioa egin dezakete, lanbidea benetan martxan jartzeak dituen arriskuez libre.



Gero, Nadia López arituko da bera kide den Basortu Elkarteari buruz. Elkartea sortu zen lau gazte nekazaritzako lanetan hasteko, eta Zeberioiko Maskilu kontserba fabrika kolektiboaren sorrera dinamizatzeko.

Azkenik, Marijo Imazek, Urduñako Udaleko dinamizazio agroekologikorako langileak, Ekoizpen Orduña aurkeztuko du. Bizkaiko udal horrek zerbitzua sortu zuen agroekologia garatzeko Urduñan eta eskualdean. Sektorea dinamizatu nahi du, eta lurrari eta ekologiari lotutako nekazaritza eta ekologia sustatu.

Saioa goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko ordu bi eta erdietan amaituko da. Hitzaldiak bukatu ondoren, debatea hasiko da, bertaratuek auziak, iradokizunak, zalantzak eta abar plazara ditzaten. Jardunaldian parte hartzea doakoa da, baina alde z aurretik izena eman behar da, esteka honetan: <https://bit.ly/3lzPTkd>